

Luis Mari Retolazaren ibilbide politikoaren laburpenaren laburpena baino ezin da jaso orrialdeotan. Ertzaintza sortu baino zerbait gehiago egin du. • Testua: Imanol Murua Uria

LUIS MARI RETOLAZA EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILBURU OHIA

«Ez dugu lortu nik amestutako Ertzaintza»

B

erunezko soldaduen bilduma atzean duela mintzo da Luis Mari Retolaza (Bilbo, 1924). Ibilbidea ezagutzen dion inor ez da harrituko etxeko bulegoan gudaritxo armatuak ikusita. Armek zerikusia izan baitute Retolazak egin-dako bide luzean. Ez Herrizaingo sailburu gisa (1980-88) Ertzaintza sortzea egokitu zitzaio-lako bakarrik. Frankismoaren garaian ere, klandestinitatean EAJko BBBko arduradunetako zela, badaezpadako «indar armatua» antolatzea izan zuen beti kezka nagusien artean.

Armekin aurreneko harremana, hala ere, 12 urterekin izan zuen. Gerrarekin. Gernikako bonbardaketa bertatik bertara bizi izan zuen, Muxikan baitzegoen orduan, familiaren etxean. «Hegazkinak jaitsi eta gure parean jartzen zirenean, pilotuak ikusi ere egiten genituen. Muxika metrailatu egin zuten. Errepidean zihoala emakume bat nola metrailatu zuten ikusi nuen. Hantxe hil zen, otarreak eta abarrrak aldean zeramatzala». Gero Bilbora itzuli ziren Retolazarrak, frankisten esku erori berri-tan. «Kaleetan ez zegoen metrailetarik. Baina a zer beldur giroa! Francoren irudia agertzen zen paskinez betetako hormek zirra-ra eragiten zuten, Espainiako banderak, ikur faxistak, uniforme militarrrak...».

Arrastoa utzi zion «garai hartan biziako terroreak», eta gazterik ekin zion erregimenaren aurkako jardunari. Eusko Ikasle Alkartasunaren sortzaileetako izan zen 1943an, eta erresistentziako euskal zerbitzuetan hartu zuen parte, aliatuentzako inteligentzia sarean. Bilboko Carlton hoteleko joan-etorri guztien berri ematen zien bere taldeak, esate baterako, aliatuei. «Gestaporen habia zen hotel hura».

Ikasleen elkarteko hainbat kide atxilotu zituztenean, ihes egin behar izan zuen Ipar Euskal



Luis Mari Retolaza, etxeko bulegoan. Atzean, berunezko soldaduen bilduma. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Herrira, 1945ean. Orduan ezagutu zituen Juan Ajuriagerra eta EAJko erbesteko beste hainbat arduradun, eta geroztik EAJko kide sentitu izan da. 1949an itzuli zen Bilbora, bi egonaldi labur egin zituen Larrinagako espetxean, eta 1955ean, Bizkai Buru Batzarrean sartu zen.

Roke izena hartu zuen, klandestinitaterako. «Jesus Solau-nek jarri zidan, EBBren bilera batean. Goitizen bat behar genuen, eta Roke jarri zidan. Kontua da gerora, nik dirua neukala, zabaldu zutela batzuek eta... Rockefeller. Egia da niri egokitzten zitzaidala alderdiaren maileru guztien bermeak jartzea, Sabin Zubirirekin, eta horregatik, batzuentzat Rockefeller nintzen».

BBBko burukide gisa Ekineko gazteekin, bera baino gazteaxagoekin, borrokan aritzea egokitu zitzaion. EAJren Euzko Gaztedirekin elkarlanean aritu ziren hasieran Ekinekoak, aldi labur batez bat eginda ere bai, baina harremanak apurtu egin zituzten, 1958an, gerora ETA sortuko zutenekin.

Haustura hura baino lehenago Ekinekoak laguntza eske nola joan zitzaizkion gogoan du Retolazak. «Armak behar zituztela esanez etorri zitzaizkidan behin. Operazio bat egin behar zutela institutuan: jaiegun batean edo gauez sartu, eta hormak pintaketaz josi. Babesa behar zutela, bi metrailleta gutxienez. Jota zeudela pentsatu nuen. Baina erregimenaren nuen: emango nizkiela, baina baldintza batzuk jarritan. Azkenean ez zuten egin. Baina nik esan nien emango nizkiela».

Baina EAJk metrailetak zituen?

Bai, gizona. EAJ beti saiatu izan zen, klandestinitatean, talde armatuak izaten. Ez indarkeriazko ekintzak egiteko, ezta ikuspegi militarrekin lubakietan borrokatzera ateratzeko ere. Batez ere, polizia militarren moldeko zerbait, herri honetan ordena zaintzeko, erregimena aldatuz gero badaezpada prest egoteko. Zer gerta ere.

Herrizaingo sailburu aritu aurretik ere aritu izan zinen arma kontuetan, beraz.

Joseba Rezolaren eta Ajuriagerraren artean lotura lanak egiten aritu nintzen, joan-etorri eten-gabean, frankismoaren azken urteetan. Erresistentziako buruzagia zen Rezola, erbesteko Jaurlaritzako lehendakariordea, Donibane Lohizunen. Garai hartan garrantzia eman zitzaion, badaezpada ere, talde armatu bat prestatzeari. Segurtasun

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(aurreko orrialdetik dator)

kontuetarako. Alderdiaren eta Jaurritzairen kezka etengabekoak izan zen. Eta niri egokitu zitzaidan jardun arlo horretaz arduratzea. Azkenean, frankismoaren azken urteetan sortu zen alderdiaren Ertzaintza, 1973-74 inguruan.

Nola osatu zen EAJren Ertzaintza hura?

Israelgo talde berezietako batzuk ekarri genituen, prestatzeko. Landetara ekarri genituen, eta gure jendea prestatzen ibili ziren, Garai intentsioa izan zen. Alderdiaren Ertzaintzaren oinarria han jarri zen.

Zenbat jende ibili zen Landetan? Dozenaka batzuk, baina ez nago ziur zenbat. Batez ere instruktoreak prestatu nahi genituen, gero, unea helzten zenean, haiek jendea eta taldeak zuzentzeko. Anton Ormazak jakingo du hobeto, mutilekin bera baitzebilien zuzenean. Mitinetan-eta alderdiko jendea babesten ibili ziren gero, transizio garaian, badez, pada ere, iskabilik baldin bazeuden ere.

Armekin? Armak bazituen taldeak, baina gainean ez zituzten eramatzen. Ez genituen alpatu ere egin nahi, eskandalurik ez pizteko. Geroa, Carlos Garaikoetxeak 1980an Herriazigongo sailburu izateko deitu zidan. Lehentasun nagusia Ertzaintza sortzea izan zen, eta, orduan, alderdiaren Ertzaintza ezabat behar zuten nirekin. Are gehiago, desegin egin nuen. Iskabila txiki bai ekarri zidan horrek Bermeokoekin, Anton Ormaz eta abarrek. Hori desegin da, Jaurritzairen Ertzaintzaren hasi nintzen. Talde armatu bat izan behar genuen kezakekin bat zetorren hori, eta, Herriazigongo sailburu izendatu berriant, batere eskumenik izan gabe, denari aurre hartu eta, presaka, Ertzaintza sortzarri ekin nion. Berroikito taldearekin.

«Ekitza guztuzten politikak» baliatuz sortu zen Ertzaintzaren enamaina izango zena, Berroikito taldea (Rezola taldea, izen ofizialez). «Kritikatu eta eraso egin zitaden horietatik. Bai kanporatu eta bai barrutik». Eusko Jaurritzaizako erakundeak eta arduradunak babesteko taldea zen berez, baina «guztiz ekitza talde bat zen, gerta zitezkeen edozeri aurre egiteko modukoa, komando jardunean espezializatua». Erresuma Batuko SAS ekitza taldeetako kideak ekarri zituzten prestatuntzarako: «Famatz, behintzat, onenak haiek ziren».

Ertzaintza sortzeko, hala ere, Alemaniako ereduak hartu zuten erreferentzia nagusi. «Eredu asko auzerri genituen: frantsiera, ingeleza, italiarra, belgikarra, kanadarra... baina gehienek oinarri militarra zuten, bai anto-

laktuntzan bai prestatuntzuan. Azkenean, eredu alemanak erakari gintuen gehien. Neurri bastez, diktadurara gogor batetik zetooren Alemania, gu bezala. Polizia berriak ehuneko ehuneko kutsu demokratikoa izatea behar zuten alemanek. Sistema alemanean egin zutena baliagarria izango zitzaigula uste genuen. Alemanen kolaborazioa aparteko izan zen».

Alderdiko Polizia osatzen ari zirenetala kritikatu zizuten orduan, zein sartzen zen zorrotz kontrolatzen zenuela?

Jakina. Garai hartan jarri beharra dauka. Ez ezker abertzalekoak, ez PP, ez PSOE ez zeuden prest kolaboratu, parte hartu eta babesteko. Alderdiaren ingurukoak baino ez zeuden prest Ertzaintzaren parte hartzeko, edo abertzaleak behintzat. Egia da hasiera hartan kezka genuela infiltratuen kontuarekin, eta begiratzaren guren bakoitza nor zen: *horrekak ote ziren, espainolista itusak a! ziren...* Benetako Ertzaintza nahi genuen, herriarena eta herriarentzat. Ezin da esan alderdiaren Polizia denik. Alderdiak inoiz ez du Ertzaintzaren agindurik eman. Nire garaian ez, behintzat.

Zergatik izan ziren Espainiako Armadako militarak Ertzaintzaren buru gorenak?

Estatutuko 17. artikuluko behin-behineko sedapenak diotenean, *horrekak ote ziren, espainolista itusak a! ziren...* Benetako Ertzaintza nahi genuen, herriarena eta herriarentzat. Ezin da esan alderdiaren Polizia denik. Alderdiak inoiz ez du Ertzaintzaren agindurik eman. Nire garaian ez, behintzat.

Ertzaintzako benetako buruzagik izan?

Ez. Manifestazio bat bazeogen Laukan, Carlos Diaz Arkoetxak [teniente koronela, Ertzaintzako buruzagi nagusia] antolatzen zuten manifestaziorako taldea, manifestazioa desegin behar bazen, edo Lauka bestetu behar bazen... Baina sekula ez zuten esku hartzen antolatzen, helburuetan, prestatuntzuan, baizik eta ekitzatan. Gizon leiala izan zen Diaz Arkoeta, eta Ertzaintzaren dena emana. Ertzaintzako buruzagirik titulua zuenik, eta bera pozik zegoen horrekin.

ETAk Diaz Arkoetxek hil izanak zerikuskirik izan zuen geroztik. Espainiako militarak Ertzaintzako buruzagi ez izatearekin?



Txarretik beti ateratu daitezke onura. Baliagarria egin zitzaidan esan ahal izateko ez nuela militar gehiagorik izendatuko Ertzaintzarako, inor ez nuelako hilotzaren eraman nahi. Publikoki ez nuen esan, baina argudio hori erabili nuen hemen. Madrilen eta toki guztietan. Pisuak arrazoa zen. **Zure agintaldiko esu gogorrenetakoak Diaz Arkoetxaren eta Genaro Garcia de Andoainen heriotzak izan ziren?**

Une zailenak eta mingarrienak horiek diru, bai. Arkoetxaren min izugarria eman zidan. Gure leiala izan zen. Beti aginduak betetzen zituen. Genaro, berriz, imajina dezakezu. Klandestinitatezko kide nuen, nire eskumeko eskua zen Ekitza taldean. Fenomeno bat zen. Dena ematen zuten. Anala hil balidate bezala sentitu nuen. Eta Joseba Goikoetxearen hilketak. Hura Euzko Gaztediko zen klandestinitatean. Azkenean, onaratu ziduten.

Ez zenuen ETAren mehatxurik izan? Horren kezka izango zenuen, denon buru zinenen.

Beti pentsatu izan nuen aurreko mehatxurik ezin zirenik. Baina, egia esan, inoiz ez zidaten mehatxurik egin. Herriazigongo sailburu izan aurretik, behin bai. Telefonoz deitu zidaten, ez dakit nor, ordu artoke bidean jarraituz gero gorputza berunez betean zidatela eta nire jendeak baiarri nire gainean ikusiko zuelako gorpua. Behin nire autoko lau gorpulietako torlojuak erdi askatuta agertu zitzaizkidan. Sabotajea izan zitekeela esan zida-

«EAJ beti saiatu zen, klandestinitate garai hartan, talde armatuak izaten, Polizia militar moldeko zerbitzu»

«Israelgo talde berezietako batzuk ekarri genituen, alderdiaren Ertzaintza prestatzeko»

«Oraingo ikuspegiarekin, gure betebeharrak akaso GALI buruz genekiena argitara ateratzea zen»

«ETAk armak uztea ez da bakera niretat, armistizioa baizik, eta bakera sakonagoa da»

terren Ertzaintzan, baina ez dakit, nik ez nuen pentsatu sabotajea zenik.

Ertzaintza sortu zutenen eta ETaren aurka auzre ibiliko zela garbi zenuenatik, edo arlo hori Espainiako Poliziaren eta Guardia Zibilaen esku bakarrik gelditu zela uste zenuen?

Madrilen hori nahi zuten: gurea Polizia integratu ez izatea, gurekin ez izateko forma. Guk Polizia integratu nahi genituen, eskumen guztiak nahi genituen, baita terrorismoari buruzkoak ere. Hori, batak, ETA, bestetik, nik haiek guztiak Euskaditik kanporatu nahi nituen. Ez etortzea terrorismo kontuengatik hona Polizia eta Guardia Zibila. Eta horrela hirizatu zen Madril. Gero gauk ezte bide bat hartu dute, eta ez da modurik izan.

Konfrontazioa zuzena izan zen azkenean.

Nik konfiantza neukan ETAk beste jarraia bat izango zuela. Konfiantza neukan Ertzaintza izanik, euskal jendea, ezin abertzalea gainera, beste era batera jokatu zuela ETAk. Inoiz ez nuen pentsatu Ertzaintzaren aurka ankerkeria horrekin egingo zutenik.

Gaur egungo Ertzaintza sortzearen aurka zure buruan zutenen eraberridatzen da?

Ez bade da. Ez dugu lortu nik amestutako Ertzaintza. Zer-bit narritzen duzuenen, idealizatu egiten dute. Gero, denbora beren poderioz, moldatu denbora etortzen da, zailtasunen arabera, eta zuk amestu zenuen hori aldatu egiten da. Ertzaintzaren zailtasun handiena borroka armatuen intentsitatean izan da. Horri, gainera, bi aldeek elkarri



LUS JAUREGIALTZA / ARGAZKI PRES

egin dizkieten irain eta laidoak gaineratu gero, arazo handitu egiten da. Gauza bat da legez kanpoko denari aurre egitea, baina beste kontu bat da politikariak edo Ertzaintzako zuzendari-zkoak irainka jartzea. Beharrik gabe mintzea da hori, beharrik gabe gorrotatzen sustatzea. Ertzaintzaren irudieratan oso kaltegarria izan da.

Beste sailburuen baten garlari arara.

Bai. Nahikoa da bete behar dena betetzea. Eraginokorra izatea. Baina ez ibili zein den zere esaten, hitzaldiak han eta hemen ematen. Ez da Herrizaintza sailburu baten lana. Dena den, indarkeriaren aurkako borrokan aritu beharrik hiri segurtasunean eragin beharrelako eraginokor-tasuna kendu badio ere, profesionaltasun eta eraginkortasun handiko Ertzaintza daukagula urek dud. Baina ez naiz maila horrekin konformatzen. Maila hori gure inguruko edozein polizi-tan topa dezakezu. Gure eragin urrutirago dago. Herriarrarekin harreman handiagoa bilatzen dugu, herriaren ezagutza handiagoa, gizatean parte-hartze handiagoa. Eraginokortasuna handiagoa litzateke, eta gure nortasuna indartuko luke, gure bereiztasuna. Hemen Polizirik bi funtzio baititu: eraginokortasuna eta herriaren nortasuna.

Ertzaintzaren kontrastean politikoa nagusia ez al da Polizia integrala izanik kanpoko epailean erabakiak bete behar dituela, eta berak xtitotutakoak Espainiako espetxe sistemaren esku jartzetik dituela eskualde autonomioko kontrolak kanto?

Hori da dilema handia. Ez gara

MOTZEAN

Juan Ajuriagerra: Gizon guxik markatu nautse hainbeste nire izearan, pentsaerari eta ibilbidelari.

Jose Antonio Agirre: Sinbolo bat, erreferentzia bat. Sabino Arana, Ajuriagerra eta, oraindik bizi bada ere, Arzalluzen parekoa. Lau A, esaten diete.

Xabier Arzalluz: Aparteko gizona. Zuzena, eredua. Ajuriagerraren oinordekoa.

Carlos Garaikoetxea: Gizon benetan interesgarria. Oso dohan oin dutu, baina ezagari negatiboak ere bat: personalismoa, harrokeria, mesfidantia.

Jose Antonio Ardanza: Bere funtzioa oso ongi bete zuten. Bertute handikoa.

Juan Jose Ibarretxe: Aipatu ditudan beste lau horien parekoa izan daiteke, bidean galitzen ez bazaigu: Arana, Agirre, Ajuriagerra, Arzalluz eta bere. Gaitasuna du, egoskorra da.

Josu Jon Imaz: Jatorra. Ondo. Azkarreki sartu da saltsa handitan. Ingurua ere ez dute onena dudatu. Badu konfiantza berarengan.

Joseba Egibar: Hazi egin da. Hasiera-hasieran ez nuen oso gogoko. Baina garatzen joan da, eta gaur egun dugun hizlariak eta politikaririk onena da. Ideia argi eta zehatzak ditu.

ez epailetzaren jabe, ez espetxe politikaren jabe, ez beste gauza askoren jabe. Hori da bizkar gainean daramagun zama, Politzia honek dauka zama.

Noraino obeditu behar ditu Ertzaintzak, adibidez, Auzitegi Nazionalaren erabakia? Foru baten famatua ez al litzateke baldin behar (onartzen da, baina ez dago betetzen)?

Ez. Guk pase forala baliatuko bagenu, jarraian haiek *pase forala*, edo *paseo forala*, egingo lukete: «Zuek ez duzue egingo? Guk egingo dugu». Guardia Zibila etorriko litzateke. Eta hori ezin dugu toleratu. Zaila da joko.

Espainiako Polizirik eta Guardia Zibila alde egiten zen Ertzaintza Polizia integrala izatearen helburuetan bat. Baina ez ditza joan. Ez ere helburu nagusia. Helburu nagusia zen Politzia integrala nahiz gurea, eskubidea geneukalako. Eta gainera, haiek (Espainiako Politzia eta Guardia Zibila) sobera zuek arduraditzeko baliu zigun. Baina ez digute kasurik egin. Beste gauza askotan bezala.

Herrizaintza sailburu zinen garriaian aritu zen GAL Ipar Euskarli Herriari atentauek egiten. Ertzaintzak informazioa bazuela baina ez zuela jakinarazi leporatu izan zaitza. Bazuen?

Bai. Ertzaintza hasi berrietan zegoen, hedatzen ari ginen, baina Ekiniza taldea bagenuen, ekiniza eta informazioa zerbiztua. Taldekoek Amedo lokalizatu zuten, Kasinoetako joko aretoetan. Oso modu lotsagabean egin zuten: Iparaldean ekiniza bat zegoen bakoitzean, hurrengo egunetan milioika pezetza gastatzen zituen erraz. Txostenak banituen, gero

eta gehiago, gero eta garrantzi-tasua go. Tentuan jarri ginen. eta Madrilen abisatu genuen.

Nori?

Jose Barrionuevo iri esan nion, nik bere. Poliziako komisario bat horrela eta horrela jokatzen ari zela esan nion. Eta berak, ez kezkatuko, bazuekula informazio hori. Arrastoei jarraituz, GALeok erabiltzen zuten etxebizitza ezkutu batera iritsi ginen, Sabino Arana etorbidean, Bilbon. Etxera joaten zirene jarraitu egiten ginen, eta Gordoniko polizia esatera joaten ziren. Poliziarenekin bat eginda zuekula garbi zegoen. Datar horiek, Barrionuevorenagana joan nintzen, eta esan zidun bazekela, eta esku hartu zuela. Ni ez kezkatuko. Ez neukala jenderik horretan aritzeko. Santi Brouard hil zutenen, Genarok [Garcia de Andoain] ja gauza persional gisa hartu zela, adiskide baitzuen nik bezala, eta han ibili zen ikertzen, geldiarazi zuten arte. Poliziak esan zioten ez jarraitzeko horretan. Berik ari zirela. Bagenekien zer implikazio klase zeuden. Ez genekien nor. Gure susmoak genituen, eta susmo horien barruan zuekuden gori izan ziren: Sacristobal eta Danborena.

Denbora eman duen izu egitegin, ez al zaitza iruditzen beste era batera jokatu eta implikasi politikoa argitzen lagundu behar zuela Herrizaintza Sailak, zeukan informazioa edukita?

Ikuspegiaren ikusita, gure obligazioa akaso prentsan argitaratu atera eta saltea zen. Baina gara! hanbeht kokatu beharra dago. Bai berhan prentsan atera nintzen Pasaiaok gertatu zenean, KAAkoak garbitu zituztenean. Informazio fidagarria zen, gure jendearena, hori nola gertatu zen jakiteko. Nazka eman zidan. Eta prentsa atera nintzen. Lotzagarria izan zela esan nuen. Zailapartia sortu zuen, baina ez zuten ezertarako balio izan. Baina Barrionuevorenkin konfrontazioa eduki nuen horregatik, haremna hautsi genuen, eta hila-beteak egin genituen hitzegin gabe. Hilabete asko.

1988an utzi zuten Retolazak Jauriartzia. Bera eskatu zuten, baina Jose Antonio Ardanza «zilarreko zubia»-jari ziduna, berehala heldu zidela hurren hitza. Jauriartzia utzita zuekula egin behar izan zuten, akusatuen aulkitik. Oriens Garaikoetxea lehenkariari charean etxe-ko entzuketetik buruzko epailetari. Bera ez zuten zigortu, baina Ertzaintzako hainbat arduradun, bai. Garaikoetxearen mendekua izan zuten dugu, 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpe alderanean lehenkariak izandako jarraerari buruz Retolazak egindako adierazpen bantzagatik hartutako «erretabanta», haren hitzaren lehen-dakari ohak berak eragin baitzi-

tuen entzuketak, gero Retolaza-ri leporatzeak.

1992an, alderdi barruko arduratara itzuli zen, BBkko lehen-dakariartzara. «Ako gutatu zitzaizdan alderdik kargu batean bukatzea, eta ez Jauriartziko kargu batean. Gobernu autonomia zen, eta ni abertzaletan naiz goitik behera». Handik lau urtera, berriro aurkeztu zen kargu berera, baina Javier Atutxak irabazi zion, barne hautsukundee-tan. Handik zortzi urtes Joso Jon Imazen eta Joseba Egibarren artean izandako lehian antze-koa izan zen. -Galdu nuen, eta etxera-.

Nola bizi izan duzu, gero, Imaz-en eta Egibarren arteko lehia? Oso deseroso. Era horretako kanpainak ez ditut esaten. Ikuspegiak eta ideiak ezbaizatutak, bai, batzarretan, behoko batzarretan hasita. Baina gaur ohituta hori galduta egin dugu, ez dut ikusten behetik gorako prozesu hori. Orain, Josu Jon [Imaz] baldintzatu ikusten dut. Ez dut ikusten, adibidez, Xabierri [Arzalluz] deitzen dietenik honetaz eta hartu alhouka eskatzeko. Hainbeste piaz duen baki galduta beharko litzaioke.

Azkenaldiko gorabehera politikoa itxaropen bezal dituzu? Aurrean jakin behar dugu zer den baka. ETAk arnau utezari deitzen ote diogun baka. Hori ez da baka, niretzat. Hori arnau-istizioa da. Baka sakonagoa da. Espainiak ez gaitu baka baka. Borrokatu egin behar dugu, maila politikoa sakonean, Euskarli Herriak Espainiako Estatuarekin dute gatazka konpente-ko. Transizioa futsalerria izan zen. Forma politikoa baino ez zena: alderdi politikoa eta parlamentaria, baina konstituzio batek zaindua. Konstituzio hori nork zuzendu dezake? Nork dugu hitza? Herri espainiarrik! Baina, zorianez, ikusten ari naiz herria kontzientzia hartzen ari dela pikandaka. Aurrera goa, poliki-poliki. Bi pauso aurrera, eta akaso bat atzera, baina bagoaz.

Abertzaletan arteko elkarlanean aldekoa zara. Herrizaintza sailburu izan zirela eta ezker abertzaletarekin izan dituzten gorabehera gutzitan ondoren, elkarlana posible dela zue duzu?

Posible da. Bete izango da erreze-loa duen jendea. Baina oso espikatzeko beldura eta zure ideiak berrera ona badu alde baraman zein baten, posible da. Solakide batiagarririk behar dira horretako. Solaskideez maila izatea, gaitasuna izatea. Gaur egun, falta zidugu. Uste dut [Barretxe] lehenkariak elementu ona dela. Baina alderdian aurrera egingo duen gizona behar ditugu. Abertzaletasunari lehentasuna izan behar du.